

Atarikoa

OÑEDERRA, Miren Lourdes
Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua

2019ko otsailaren 14an, Gasteizko Artium museoan, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak «Eta ahoskera zer?» Jardunaldia antolatu zuen Euskaltzaindiaren mendeurrenaren ospakizunen testuinguruan.

Jardunaldi haren helburu izan zen ahoskeraren garrantzia aldarrikatzea. Ohikoa da, eta ez bakarrik euskararen kasuan, ahoskerari gramatikari edo hiztegiari baino garrantzi gutxiago ematea. Horretarako arrazoi nagusienerako bat, aitortu edo aitortu gabea, zailtasuna izaten da. Ahoskeraren ikaste eta irakasteak gramatika edo hiztegiarenak baino zailagoak gertatzen zaizkie irakasleei eta, beraz, ikasleei. Axola gutxiak eta zailtasun usteak elkar bazkatzen dutela ere egia da ziurrenik. Jarrera ezkor horien aurrean, ordea, gauzen errealitateari zintzo begiratuta, nabarmen da ahoskeraren garrantzia: ahoskera da hiztun baten hizkuntz gaitasunaren lehenengo irudia. Hartara, adituek azaldu bezala eta bigarren hizkuntza bat hitz egiten duen edonork ederki dakienez, ahoskera menperatzeak ziurtasuna ematen dio hiztunari. Aintzat hartu behar da, halaber, hizketa dela hizkuntzaren gauzatze behinena, nagusia, eta hizketa ahoskeraren bidez gertatzen dela, hitzak, arau gramatikalek josita, hots bihurtuta kanporatzen direnean.

Idea horiek guztiak Ahoskera batzordeak 2015eko Ahoskera Jardunaldian plazaratu zituen Donostian. Orduan azaldu zuen lan ildo nagusia ere, 1998ko ahoskera araua (EBAZ) bideratu zuen Ahoskera lantaldeak utzitako ondare dena: euskalkien eta batuaren arteko uztartzea, ardatz harturik hizkera-maila edo erregistroen egituratzea. Lan horren emaitza izan behar

litzateke, batetik, euskara batua besterik ikasi ez dutenei hizkera maila arduragabeetarako baliabideak eskaintzea, eta, bestetik, euskalkia ikasi dutenei hizkera zaindurako bideak irekitzea.

2019ko Jardunaldiaren helburu nagusia izan zen EBAZ arauan idatzita dagoenaren komunikazioa: azalduz erraztea alegia, batzuetan egin izan diren irakurketa linealegiak saihesteko asmotik abiatuta. Izan ere, ahoskera ezin da gramatika edo hiztegia bezala ikasi edo ebaluatu. Gertuago legoke ahoskeraren lantzea antzerki, dantza edo kantarenetik: ez da gramatika bezala memoria kontua eta arauak ere dimentsio-aniztunagoak izan behar dute. Horren alderdi teoriko eta praktikoak azaltzea izan zen aurkezpenen jomuga (ikus Jardunaldiaren egitaraua).

Ondoko orrietan daude aurkezpen horien testu-moldaketak. Gainera, 2019ko lana dagokion testuinguruan kokatu eta edukiak osatzea erosoago gerta dakion irakurleari, bi eranskin gehitu dira: Euskaltzaindiaren 1998ko «Euskara batuaren ahoskera zaindua» araua eta goraxeago aipatu 2015eko Batzordearen txostena jasotzen duen artikulua («Ahoskera batzordearen txostena, ahoskerak axola du»). Inork Ahoskera batzordearen ideien garapena hobeto ezagutu nahi balu, begira ditzala era berean 1998ko «Ahoskera lantaldearen errendapen txostena» eta «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak».¹

Lehenengo Miren Lourdes Oñederra batzordeburuaren «Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz» artikulua dator, Jardunaldiko txostenaren «Ahoskera arautu eta i(ra)kats al daiteke?» izenburuari galdera marka kenduta artikulurako. Bertan hitzaurre honen hasieran adierazitako gaiak garatzen dira, aurreko urteetako Ahoskera batzordearen hausnarketa eta praktiketarik sortutako gogoeta, kezka, zailtasun eta proposamen teoriko zein praktikoak azalduz.

María Heliadora Cuenca hizkuntzalariaren «¿Se puede enseñar la pronunciación?» lanak ildo beretik sortutako galderari baietz erantzuten dio, ingeles ahoskeraren didaktikaren teoria eta praktiketara oinarrituz. Orain

¹ Hurrenez hurren: Euskera 43 (1), 265-274 eta Euskera 43 (2), 439-449. Bestela: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49448.pdf> eta <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49467.pdf>

arteko ezagutza, lan eta ikasketa-metodologi berri oparo eta zehatz ematen zaigu. Ahoskeraren berebiziko garrantzia azpimarratu eta zehazteaz gainera, lan honek aldarrikatzen du ingelesarekin izandako eskarmentua beste hizkuntzen ahoskeraren ikasketara eraman daitekeela. Egungo euskararen egoera aintzat hartuta oso garrantzitsu den kontu bat ere hartzen du ikerlariak esku artean: hiztunaren lehen hizkuntza edo hizkuntza nagusiaren eragin fonologikoa menperatu nahi den beste hizkuntzan. Horrekin batera irakaskuntzaren praktikan sor daitezkeen zailtasunei nola aurre egin eta, metodologiaren aldetik, lehentasunak non jarri eztabaidatzen da, gaiaren inguruko ikerlari pisudun zenbaiten iritzien argitan. Ahoskera lantzeko Interneteko tresna zenbaiten aurkezpena ere egiten zaigu.

Julia Marinen «Nola ikasi ahoskerak» aurkezpena Jasone Salaberria batzordekideak transkribatuta agertzen da ondoren. Aurkezpen horretan Marinek antzerkiaren, itzulpengintzaren eta, oro har, euskararen erabileraren alor zenbaitetan izandako urte luzeetako eskarmentuaren emaitzak aurkezten ditu. Aurreko bi lanen ildotik, Marinek ere indarrez aldarrikatzen du ahoskerari jarri beharreko arreta eta aurreko biek bezala salatzen ez zaiola merezi duen garrantzia aitortzen. Aurreko bi lanetan ahoskeraren alderdi fisiko eta fisiologikoak teoriaren ikuspuntutik agertu badira, Marinek ahoskeran gorputza inplikatzearen ondorio praktikoak eta hala ez egitearen ondorio makurrak adierazten ditu. «Esatearen ederra» bere metodoa laburbiltzen du antzerki mundutik irakaskuntzarenera hedatzea proposatuz, ahoskera landu daitekeela eta berak nola egin izan duen erakutsiz, Marinek ere baiezko erantzuna ematen dio lehengo biek irekitako galderari.

Jardunaldiko azken atala elkarrizketa bat izan zen, Oroitz Jauregi batzordekideak Gorka Lazkanori egindakoa. Une batetik aurrera Julia Marin ere elkartu zitzairen eta Jasone Salaberriak, haiek esan zutena bilduta, hemen duzuen testua prestatu zuen. Jauregik aurkeztean esan bezala, Lazkano irakaslea eta itzultzailea da, baina, batez ere *Errementari* filmeko hizkuntz arduraduna izateagatik ekarri nahi izan genuen «Eta ahoskera zer?» jardunaldira. Elkarrizketan zehar ikusten da Lazkanoren ibilbidea zein izan zen film horren hizketa atontzeko orduan, nola hautatu ziren hizkerak, zein zailtasun aurkitu zituzten eta zein irtenbide eman zieten. Oso kontu interesgarriak agertu ziren euskal ahozkoaren estandartzearekin lotuak, hizkera «as-

matuen» naturaltasuna lortu nahia, euskalkien eta pertsonaien arteko egokitzapenak, batuarekikoak, etab. Marin elkartu zitzaizenean, azaldu ziren zinearen eta antzerkiaren arteko desberdintasunak, antzekotasunak, hizkerari ematen ez zaion garrantzia, etab. Marinek zenbait trikimailu metodologiko ere eskaintzen ditu, aktorea euskalkiduna denerako eta ez denerako. Elkarrizketa honetan, berriz ere, garbi geratu zen ahoskera lantzea onuraduna dela zinean eta antzerkian, pertsonaiak sinesgarritasuna irabazten baitu. Hori bai, horretarako, denbora eman behar zaio, arduradunak kontratatzeko dirua behar da... alegia, ahoskerari duen garrantzia aitortu behar zaio.

Eskerrak ematen dizkiegu aurkezleei egindako ekarpen baliotsuengatik, guztion arteko harmoniagatik. Eskerrik asko Artium museoko aretoa mukururu bete zuten entzule arretatsuei ere, etortzeagatik eta hitzaldien ondoko elkarrizketa tarteak esanguratsu egiteagatik. Nahiago genuke guri lanean jarraitzeko emandako bultzada bezainbat lagunduko balu argitalpen honek nahitaez denon artean egin beharko dugun euskal ahoskeren zaintzan.

Eta ahoskera zer? jardunaldia

Non-noiz: Gasteizen, Artiumen, 2019ko otsailaren 14an (goizez).

- 09:00-09:30 – Harrera.
– Izen-ematea.
– Material-banaketa.
- 09:30-10:00 Hasiera ekitaldia:
– Andres Urrutia (euskaltzainburua).
– Miren Lourdes Oñederra (euskaltzain osoa, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua).
– Arabako Foru Aldundia.
– Gasteizko Udala.
- 10:00-10:45 – Aurkezlea: Irantzu Epelde (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
– “Ahoskera arautu eta i(ra)kas al daiteke?”, Miren Lourdes Oñederra (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeburua).
– Hitzaldia (40') eta elkarrizketarako tarte (5').
- 10:45-11:30 – Aurkezlea: Irantzu Epelde (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
– “Irakats al daiteke ahoskera? Eta aldagarritasuna?”, M^a Heliadora Cuenca Villarín (Sevillako Unibertsitatea). (Gaztelaniaz).
– Hitzaldia (40') eta elkarrizketa (5').
- 11:30-11:55 – Atsedena - Kafea.
- 11:55-12:30 – Aurkezlea: Jasone Salaberria (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, CNRS-IKER-UMR 5478 ikergunea).
– Hizlaria: “Nola ikasi ahoskerak”, Julia Marín (antzerki itzultzailea, komunikazio tekniketan irakaslea).
– Hitzaldia (30') eta elkarrizketa (5').
- 12:30-13:30 – Gaia: “Zinema eta euskararen ahoskera”.
– Elkarrizketatzailea: Oroitz Jauregi (Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitatea).

- Elkarrizketatua: Gorka Lazkano (Errementari filmeko eus-kara arduraduna).
 - * Julia Marin bilduko zaie elkarrizketaren azken herenean (13:00-13:15).
 - Elkarrizketa (45') eta galderetarako tarte (15').
- 13:30-13:45 – Ondorioak: Pilartxo Etxeberria (euskaltzain urgazlea, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeko kidea).
- **Antolatzailea:** Euskaltzaindia.
 - **Babesleak:** Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskal Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala.
 - **Helburuak:** Jardunaldi honen helburu behinena komunikazioa izan zen: arauaren arduradunen, irakasleen, ikasleen, kazetarien... azken batean hizkuntzaren erabilera osasuntsua nahi eta behar dugunon arteko komunikazio ahalik eta onena.